


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak %0,1 igo ziren 2006ko azaroan

Azken hamabi hilabeteetan (2006ko azaroa, 2005eko azaroarekin alderatuta), eraikuntzaren kostuak %5,3 gehitu ziren.

2006ko azaroan, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,1 igo zen, aurreko hilaren aldean, eta hilabete horretako urte arteko tasa %5,3ra iritsi zen, EUSTATEN datuen arabera. Aurreko abenduaren aldean lortutako igoera %5,7koa izan da.

Urte arteko aldakintza-tasak, 1997-2006



(*) Gehikuntza azaroko urte artekoa da
Iturria: EUSTAT

2006ko azaroan, lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0); lehengaien kostuak, berriz, %0,2 igo dira.

Eraikuntza eta Obra Zibila azpisektoreek bilakaera desberdinak izan zituzten: aurreko hilaren aldean, Eraikuntza %0,2 igo zen, eta Obra Zibileko lehengaien kostuek, aldiz, ez zuten aldaketarik izan (%0,0). Bi azpisektore horien urte arteko bilakaeran ere badira zenbait ezberdintasun: eraikuntzako lehengaien kostuak %5,5 hazi dira, eta obra zibileko lehengaien kostuek %4,6ko igoera izan dute.

Azaroan, prezio-hazkunderik handienak kontsumitutako honako lehengaiek izan dituzte: beira (%3,5), energia elektrikoa (%1,9), olioak eta koipeak (%1,3) eta budina eta altzairua (%1,1) lehengaiek, besteak beste. Aitzitik, beste lehengai batzuen prezioak jaitsi egin dira, hala nola metalezko hoditeria (%-1,2), asfalto-produktuak (%-1,0), petroliotik eratorritakoak (%-0,9) eta plastikozko hoditeria (%-0,6) lehengaiak besteak beste.

Sektoreak kontsumitutako lehengai garrantzitsuen artetik, azken hamabi hilabeteetan, hauek izan dituzte inflazio-tasarik handienak: energia elektrikoa (%23,5), burdina eta altzairua (%18,0), metalezko hoditeria (%15,2), beira (%12,7), eta zementu artifiziala (%5,1). Bestalde, urte arteko prezioetan (2006ko azaroa, 2005eko azaroarekin alderatuta) honako lehengai hauek izan dituzte jaitsierak edota igoera txikiagoak: petroliotik eratorriak (%-3,8), asfalto-produktuak (%-0,1), zeramika-produktuak (%-0,1), harri elaboratua (0,3), karea, igeltsua eta eskaiola (%0,6), eta egurra eta kortxoak (%0,9).

Eraikuntzaren kostuen indizea. Euskal AE / Datu aurrerapena. 2006ko Azaroa

GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 2000= 100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	126,1	0,1	5,3	5,7
ERAIKINAK	126,2	0,2	5,4	5,9
OBRA ZIBILA	125,8	0,0	4,9	5,0
LEHENGAIEN KOSTUA	123,2	0,2	5,3	5,9
ERAIKINAK	123,6	0,2	5,5	6,1
OBRA ZIBILA	121,9	0,0	4,6	4,8
LAN-ESKUAREN KOSTUA	132,8	0,0	5,3	5,3

Iturria: EUSTAT

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp